


**Obraren nortasun agiri fitxa**

Izenburua	Gernika
Artista, egilea	Pablo Picasso- Espainia 1881-1973
Teknika	Olioa oihal gainean
Izariak	752 x 351 cm
Non atxikia da orain	Reina Sofia Museoa, Madril
Data	1937

" Pintura ez da apartamenduen apaintzeko egina, gerla tresna bat da, etsaien kontra borrokatzeko ala defenditzeko"


**Obraren xehetasunak**

Erakutsia denaren deskribapena

Margo honek animalia eta pertsonaia zenbait erakusten ditu toki hetsi batean. Friso bat bezala antolatuta da, ezkerretik eskuinera deskriba daitekeena: emazte batek bere haurra besoetan atxikitzen du, burua gibelera aurtikitzen du, haren giblean zezen bat eta txori bat ageri dira. Lehen planoan, ezkerrean soldadu hil bat ikusten da. Erdian, behean, emazte bat dago belauna lurrean. Haren gainean, argi bat dakarren beste emazte bat bada. Azkenean, eskuinean, besoak altxatzen dituen emazte bat.

Begitarteen espresioak: aho guziak zabalik dira, beldurra, izialdura, ikara edo oinazea (min ikaragarria) adierazten dute. Minez orroaz ari diren pertsonaia zerura buruz so baitira, bisaiei espresio samina indartua da.



zatiz-zati	
zaldia 	Zaldia kasik konposizioaren erdian da. Populua sinbolizatzen du, Picassoren arabera. Lantza batek saihetsa aldea zilatzen dio eta hil arte zauritzen. Ahoa orroaz ari dela dirudi, hortzak eta mihi zorrotza agerian emanez.
zezena 	Minotauroaren irudi mitikoa Picassoren obraren gai garrantzitsua da. Hor dago, soraio (impassible), hondamendiaren erdian estatiko. Duen espresio bakarra aho zabal eta mihi zorrotzean da. Haren begiak jende-begiak dira. Ikusleari so egiten dio. Bi zentzuko irudia da: batzuentzat krudeltasunaren eta basakeriaren sinbolo da eta besteentzat ihardukitzearena.
txoria 	Doi-doia ageri da, zaldiaren eta zezenaren artean, bakearen usoa izan daiteke, itxaropen eta bake sinbolo.
Ama eta haurra 	Emazte horrek bere haur hila atxikitzen du besoetan. Pietà bat iduri du (Ama Birjina negarrez Jesus Kristoren heriotzagatik). Amaren oinazea eta orroak malko itxurako begi eta sudur-ziloetan ageri dira, mihi zorrotza garrasika ari den ahotik ateratzen da. Haren besoetan, haurrak begi hutsak ditu, burua eta besoak dilindan.
soldadu hila 	Lurrean datza, pusketan, margolanaren behean, burua eta besoa moztuak ditu. Eskuak ezpata hautsia oraino tinkatzen du. Gudariaren figura da. Eskutik lore hauskor bat ateratzen da, itxaropen eta berpiztearen sinbolo.

emaztea sugarretan




Besoak zerura altxatuak ditu, Goya-ren *Tres de Mayo* obraren aipamen gisa.



Francisco Goya
Les Exécutions du 3 mai 1808 1814
huile sur toile, 266 x 345 cm, Madrid, musée du Prado

argia eskuan duen emaztea



Bat-batean jalgitzen den emaztea, hiri suntsitutik heldu dela dirudi. Haren beso eta buru luzatuek mugimendu arras dinamikoa itxuratzen dute. Lanpa ttipi hori itxaropen sinbolo eta lekuko izan daiteke.

ihes egiten duen emaztea



Ihes egiten duen emaztea, eskuinean, behean, herrestaka dabil, belauna lurrean. Bere gorputz osoa, eta oroz gainetik bisaia eta izarigabeko lepoa osoki lanpari buruz luzatzen ditu..

Zer generoko margolana da? (ingura)		
natura-hila	potreta	paisaia
Eguneroko biziaren margolana	margolana	margolan historikoa edo mitologikoa

Formak

Picassok figurak aitzinetik eta saihetsez (bazterrez) irudikatu ditu. Bere garai **kubista**ren denboran, Picassok gauzak eta izakiak diren bezala erakutsi nahi zituen eta ez ikusten zituen bezala. Ikuspegiak biderkatzen zituen, modeloaren alde guziak edo ikuspuntuak irudi bakar batean erakutsi nahiz.

Izakiak desitxuratzen ditu haien proportzioak aldatuz.

"Gernika" obran errealitatea desitxuratzen du (mihi bat zorrotz bihurtzen da, begi bat malko), lepo bat luzatzen du, belaun edo eskuak handitzen ditu. Horrek erran-nahia azkartzen dio: gerlak xehatu gorputzen oinazea.

Koloreak

Beltza, zuria eta gris tonuak baizik ez ditu erabili.

Gaiaren larritasunaren aipatzeko, kolore eza doluaren eta heriotzaren sinbolo dira.

Gehiago dena, garai hartako prentsan zabaldu ziren Gernikako bonbardaketaren argazkiak zuri eta beltzez ziren.

Gris tonuen ñabardurek formak aitzinera ezartzen edo gordetzen laguntzen dute, margolanaren konposizioa egituratuz.

Konposizioa



Kaos inpresioa ematen baldin badu ere, "Gernika" biziki egituratua da. Friso bat bezala irakurriz hasten da, ezkerretik eskuinera. Ondotik, hiruki itxurako antolaketa bereizten da. Piramidearen oinarrian, soldaduak heriotza itxuratzen du, eta gainaldean argiak itxaropena argiarekin.

Jose Luis Zumeta-



Usurbil- 1939ko apirilaren
19an sortua
*Ezagutzen duzu
Zumetaren "Gernika"?*



"Gernika" 1999- 780 x 359 cm